




ikastolak



IÑIGO ARITZA IKASTOLA
ALTSASU



Egiten ikastea, gure proiektuaren baitan garatzen dugun kompetentzietako bat da.

Gure txoriek badute euren kabia

HAUR HEZKUNTZAN, OINARRIZKO BOST KONPETENTZIAK KONTUTAN HARTZEN DITUEN 'KABI' PROIEKTUA ABIATU DUGU

Testua eta argazkiak Iñigo Aritza Ikastola

Iñigo Aritza da gure ikastola, txori bat gure logoa, Nafarroako harizti ederrenetako batean dago kokatua. Eten gabeko formazio eta hausnarketan oinarritzen da gure hezkuntza eredua, eta oraingoan txantxangorriaren ikastolan KABI proiektua jarri dugu abian.

"Ernetzen ari den hazia da haurra. Berez dakar landare bihurtzeko behar duena; lurrean zabaldu eta berez joango litzateke hazten. Baina hazi horri lur egokia, eskatzen duen ura, behar eguzkiaren beroa eta argia eta hobeto hazteko ongarrria ematen bazaizkio, landare horrek berak dakarren lorea eman du. Hortaz, hazi bakoitzaren beharrei erne egon behar dugu: berak adieraziko digu noiz behar duen ura eta zenbat ur behar duen ez itotzeko, noiz behar duen bero-

tasun handiagoa edo noiz ari den erretzen, noiz dagoen aseta, bapo, gustura."

Hauxe da Iñigo Aritza Ikastolan dugun haurra ulertzeko modua. Definizio honetatik abiatuta eta Euskal Herriko Ikastolen marko pedagogikoa kontuan harturik, Haur Hezkuntzan KABI proiektua martxan jarri da. Kompetentzietan oinarritutako hezkuntza proiektuaren aterkia dugu KABI proiektua. Oinarrizko bost kompetentzia orokorrak (izaten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, komunikatzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea eta egiten eta ekiten ikastea) kontuan izanik, hauek landu eta garatzeko proiektu pedagogikoa.

Haurrak berezko gaitasunak ditu. Bere gaitasunak bere erritmoan eta bere moduan garatu behar ditu, eta prozesu honetan irakaslea bidela-

gun izanen du. Ikastola eta irakaslearen lana izanen da, haurraren garapenerako testuinguru egokiak eskaintzea. Haurraren segurtasun afektiboa ziurtatu behar dugu, eta horretarako atxikimendu figurak, haur bakoitzaren beharrak eta erritmoa eta irakaslearen komunikazio moduak zain-tzea ezinbestekoa da.

Haur bakoitza baka-rra da, errepika-ezina, beraz ikastolan aniztasuna modu egokian errespetatu ahal izateko, erreferentzia taldean, hau da adin bereko talde bat bere tutorearekin, lan egiteaz gain, talde heterogeneoetan ere lan egiten dugu. Haurra autonomoki mugitzen da ikastolatik, eta bere beharren arabera erabakitzen du momentu bakoitzean egin nahi

duena: margotu, eraikuntzak egin, ipuin bat ikusi edota salto egin. Espazio guztietan adin desberdinetako haurrak aritzen dira lanean momentu berean.

Espazioak haurraren autonomia eta lan dinamika sustatzeko helburuz berrantolatu dira. Espazio ugari eskaintzen ditu KABI proiektuak: motrizitate lantzeko gunea, natura eta esperimentazio gunea, jolas sinbolikorako gunea, eraikuntzak egiteko gunea, arte adierazpenerako gunea, irakurketaz idazketarako gunea, edota jolas matematikoen gunea, adibidez.

Denbora ere, haurren garapena eta beharren arabera berrantolatu da. Haurrak Erreferentziazko taldean gelan tutorearekin egoteko

momentuak baditu, baina beste denbora tarte batean haurra da bere denbora kudeatzen duena. Bere nahi eta beharren arabera ekintza, lan edota jolas bakoitzari behar duen denbora eskaintzeko aukera duelarik.

Haurraren inguru hurbilena familia da eta familiak berak toki berezia izan du eta izan behar du. Hori dela eta, ikastola barruan guraso txokoa ere antolatu dugu. Modu honetan, familiak kokaleku iraunkor bat du. Bertan gurasoek txoko propio bat izateaz gain, beste gurasoekin esperientziak elkar trukatzeko aukera, irakasleekin harremanetzeko edo haurraren erritmora egokitzeko aukera dute. Ikastolan, gurasoak, haurrak eta irakasleok, errespetua, malgutasuna, komunikazioa eta konfiantza oinarritzen den familia bakar bat osatzen dugu. ●

Bizikidetza lantzen dugun beste baloreetako bat da.



LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein da Iñigo Aritza Ikastolaren logoan agertzen den animalia?
2. Zeintzuk dira oinarrizko bost kompetentziak?
3. Nola izena du Iñigo Aritzako proiektu berri honek? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Garazi Mendivil (Jaso Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Izar Bakeriza (Andra Mari Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia): Xabier Garcia (Ibaialde Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzeko dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.